

# ZEBARRI

etxebarriko euskaltegiho ikasleek eginga

2012ko  
uda

ZURE  
ORDENAGAILUAK ERRE  
BADAQUI EUSKARAZ

Ordenagailuan  
lana euskaraz  
egin ahal izateko  
aholkuak

eta gainera....

- ★ SALBA NAZAZU DELUX!!
- ★ ETXEBARRIKO ERAIKINAK
- ★ GATIBU MUSIKA TALDEA
- ★ ERREZETAK
- ★ DENBORAPASAK...



ULIBARRI  
EUSKALTEGIA



# aurkibidea

|          |                                        |
|----------|----------------------------------------|
| 3-4-5    | Zure ordenagailuak ere badaki euskaraz |
| 6        | Ume etorkinen proiektua                |
| 7        | Harribide elkarte                      |
| 8-9      | Etxebarriko eraikinak                  |
| 10-11    | Bizkaieraren txokoa: GATIBU            |
| 12-13    | Astebururako plana                     |
| 14-15    | Urteko argazkien albuma                |
| 16-17    | Salba nazazu DELUX!!                   |
| 18-19    | Horoskopoa                             |
| 20-21-22 | Errezetak: Udako menua                 |
| 23-24    | Etxebarriko tribiala                   |
| 25-26-27 | Denborapasak                           |



ZEBARRI aldizkaria zure etxean doan jaso nahi baduzu  
idatzi emailaz [etxebarri@euskalnet.net](mailto:etxebarri@euskalnet.net) helbidera

Zebarri aldizkaria honako erakundeei esker gauzatu da:



**YLIBARRI**  
EUSKALTEGIA



**Etxebarriko**  
**EUSKALTEGIA**



AYUNTAMIENTO



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia  
Kultura  
Salta  
Departamento  
de Cultura





Jadanik ez dago aitzakiarik ordenagailua euskaraz ez erabiltzeko. Gaur egun hainbat baliabide ditugu, esku-eskura eta doan, egunero etxean zein lanean erabiltzen ditugun aplikazioak eta sistemak euskaraz jartzeko. ZEBARRIko ale honetan, erabilienak zeintzuk diren eta nola instala ditzakezuen azalduko dugu.

Ordenagailuak 3 mailatan daude banatuta. Alde batetik **HARDWAREA** dugu, hau da, ordenagailua bera, edo bestelako aparatu fisikoak, haien artean disko gogorra, memoria, pro-

zesagailua. Beste alde batetik, **SISTEMA ERAGILEA**, hardwarea kontrolatzeaz arduratzen dena (Windows izenekoa da ezagunena). Eta azkenik, **SOFTWAREA**, hots, aplikazioak edo programak (web nabigatzailea, bulegotikako programak -Word, Excel modukoak-, irudien tratamendukoak, besteak beste).

Hiru horietatik Sistema Eragilea eta Softwarea dira, jakina, euskaraz jar daitezkeenak.

## SISTEMA ERAGILEAK

Windows, Linux eta Mac OSX dira sistema eragilerik ezagunenak. Horietariko lehenengoa, Windows, alegia, erabiliene da eta euskarazko bertsioa instalatu nahi izanez gero Eusko Jaurlaritzaren web gunera jo behar dugu (errazena Google edo beste bilatzaile batean **“Euskarazko softwarea deskargatzea”** idaztea).

Bertatik aukeratu eta jaitsi beharko duzue zuen windows bertsioari dagokion interfaze pakete egokia (hau da, hizkuntzaz aldatuko duen dokumentua). Deskargatu eta instalatu ondoren ordenagailua berrabiarazi berrabiarazi beharko dugu sistema eragile osoa euskaraz ager dadin.



Aplikazioak Lekuak Sistema

og., mai 24, 18:03

**Euskara** euskadi.net

Hiztegiak

Hemen zaude: Hiztegiak

**Euskarazko softwarea deskargatzea**

**Bilaketa aurreratu**

- Herria, Hizkuntza
- Euskara ikasi
- Laguntzak eta diru-laguntzak
- EBPN
- Euskararen Aholku Batzordea
- Euskara zenbakitan
- Ikerteta soziolinguistikoak
- Jardunaldiak: Udako Ikastaroak
- Hizkuntz eskubideak
- Zinpeko itzultzaile eta interpretetuen habilitazioa
- Sentiberatzea
- Euskararen corpusea eta teknologia berriak
- Lan-mundua
- Literatura
- Argitalpenak

**Xuxen zuzentzaile ortografikoa**

**XuxenIII EDBLko (Euskararen Datu Base Lexikala) datuekin**

**Bertsioaren zehaztasunak (pdf, 50 kB)**

- Microsoft Office 2000/XP/2003 (2,5 MB) / Nola instalatu
- MAC Word X (3 MB) / Nola instalatu (pdf, 474 kB)
- MAC QuarkPress (3 MB) / Nola instalatu (pdf, 649 kB)
- OpenOffice.org 2.2 Windows (Hunspell motorra) (650 kB) / Nola instalatu (pdf, 460 kB)
- OpenOffice.org 2.2 Linux (Hunspell motorra) (650 kB) / Nola instalatu (pdf, 448 kB)
- Mozilla Thunderbird Windows (MySpell motorra) (430 kB) / Nola instalatu (pdf, 150 kB)
- Mozilla Thunderbird Linux (MySpell motorra) (430 kB) / Nola instalatu (pdf, 200 kB)

**Bulegotika**

**Aurreko bertsioak**

Bigarrenik Linux dugu. Sistemarik egonkorrena da, eta birusetatik babestuen dagoena da. Software askea da eta musutruk deskarga dezakezue. Kasu honetan errazagoa da euskaratze-prozesua, bi modutara egin daitekeelarik. Alde batetik, sistema eragilea deskargatzerakoan euskarazko bertsioa hautatzea dago. Baina dagoeneko Linuxen bertsio libre horietako bat (Ubuntu, Mandrake...) instalatuta baduzu, sistemaren aukeretan hizkuntza aukera zabaldu eta euskara aukeratzea baino ez duzu. Zuzenean jaitziko ditu internetetik beharrezko dituen hizkuntza-pakete guztiak. Eusko Jaurlaritzaren lehen aipatutako web gunean duzu sistema eragile honetara erraz heltzeko aukera.



Apple multinazionalaren Mac OS X sistema eragilea garai batean euskaratzeko moduan zegoen, baina gaur egun, lokalizazioak saretik kentzeko eskatu zientetik (hori egin ezearan legeak haien aurka egingo zuelako mehatxua jaso zuten eta) ezinezkoa da sistema hau euskaratzea.

*Hortaz, Mac-en sagarra izan ezik, euskaratzea posible eta erraz-erraza da.*

## BULEGORAKO APLIKAZIOAK

Gehienok jakingo duzuenek, bi dira bulegorako (edo “ofimatikako”) suite nagusiak: Open Office eta Microsoft Office. Biak ala biak ditugu euskaratzeko moduan.



Microsoft Office-k hainbat aplikazio biltzen ditu: testu-prozesatzaileak (Word), kalkulu-orriak (Excel), diapositibazko aurkezpenak egiteko programa (Power Point), datu baseak eratzekoa (Access). Horien artean, azken hamarkadako erabilienak eta ezagunenak Word eta Excel dira. Zure ordenagailuan horiek badituzu, lehen aipatutako Eusko Jaurlaritzaren web gunea jo eta zure bertsioari dagokion hizkuntza-paketea jaitzi eta instalatu besterik ez duzu.



Eta sistema eragileekin gertatzen den bezala, software askeko bulegotika ere euskaraz dugu. Open Office da, beraz, lan hori betetzen duena. Programa horrek, behin eta berriro hartzen ditu hobekuntzak, doan, jakina. Horregatik ditu hainbeste erabiltzaile. Euskarazko bertsioa Zundan enpresak garatu zuen, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarekin. Lehen astun samarra zen instalatzeko prozesua, aplikazio osoa berrinstalatu behar baikenuen. Egun, aitzitik, nahiko erraza da, hizkuntza-paketea jaitzi eta instalatzea baino ez dugu eta.



Amaitzeko, ezinbestekoa den Xuxen izeneko zuzentzaile ortografikoa aurkeztuko dizuegu. Euskaraz ortografikoki txarto idatzita dauden hitzak aurkitu eta azpimarratzen dizkigu, marra gorri banarekin. Markatutako hitzaren gainean saguaren eskuineko botoia sakatuta hitza zuzentzeko hainbat aukera ematen ditu aplikazioak, baita hitz berriak txertatzeko ere.

Aurreko aplikazioen era berean, Eusko Jaurlaritzaren web gunean dago deskargatzeko moduan. Instalatu ondoren defktuzko hizkuntzatzat euskara aukeratzea besterik ez dugu. Hori bai, beste hizkuntzaren batean testuren bat idatzi nahi dugunean, hizkuntza aldatu beharko dugu Word edo Writer programetan.

## INTERNETEN NABIGATZEKO

Web nabigatzaileak dira, gaur egun, ordenagailuan gehien erabiltzen ditugun aplikazioak. Internetetik nabigatzeko tresnak dira eta hauek ere euskaraz erabiltzeko moduan ditugu:

### Mozilla Firefox



Nabigatzaile hau erlaizetan antolatuta dago, ez leihotan. Horrez gain, gehigarriak instalatzeko aukera ematen du. Horietako bat, guretzat oso inportantea dena, EUSKALBAR izeneko gehigarria da. Horrek euskarazko hiztegi gehienetan kontsultak egitea errazten du. Guztiz gomendagarria euskaraz idazten edota ikasten duen edonorentzat.

Erraz erraza da <http://euskalbar.eu/> orritik instalatzea. Urrats guztiak bete ondoren, barra berri bat agertuko zaigu gure nabigatzailean, hiztegi-zalantzak argitzeko tresna esku-eskura egon dadin.

### Internet Explorer

Hau da oraindik nabigatzaile erabilgarriena, nahiz eta bere presentzia gero eta txikiagoa den. Ezaguna da aurkitu dizkieten segurtasun-zuloengatik. Euskaraz jartzeko bi bide daude: sistema eragilea euskaraz jartzea edo interfaze-paketea instalatzea lehenago aipatu dugun moduan.



## POSTA ELEKTRONIKOA

### Thunderbird

Lehen aipatutako Mozilla proiektela esan dezakegu. Ezaugarrien helbideen atala, posta bat bai-onarpenak ditugu. Horrez gain, zuzenean instala daiteke euskaraz.



tuarekin lotuta dago eta aplikaziorik egonklorrena artean, karpetak kudeatzeko sistemak, posta no gehiago kudeatzeko aukera eta gehigarrien Gmail-ekin sinkronizatzeko aukera ematen du eta

### Evolution

Aplikazio hau posta elektronikoa kudeatzeaz gain, eguneko agenda, egin beharreko atazak, bilerak eta mota guztietako zereginak kudeatzeko aukera ematen du. Sistema eragilea euskaraz izanez gero, posta elektronikoa euskaraz instalatuko da. Bestela, eskuz konfigura daiteke.

### Outlook

Azken aplikazio hau Microsoft-etik dator eta ezagunentzat dugu. Euskaraz nahi izanez gero, office bulegotika suitera jo eta euskarazko interfaze-paketea instalatu beharra dago,



**Hauexek dira, bada, ale honetan aurkeztu nahi izan dizkizuegunak, baina gehiago dira, eta hurrengo Zebarrri aleetan jarraituko dugu haien berri ematen.**

# UME ETORKINEN EUSKARA TALDEA



Ikasle hauek oso gazte etorri ziren Euskal Herrira. Agian gaztetasun horrek lagundu die gure hizkuntzan hain ondo murgiltzen; izan ere, ikasturtean aurrerapauso handiak egin dituzte. Bada, esaterako, ikasle bat duela zortzi hila bete gure artera etorri zena eta orain euskara hutsean hitz egiteko gai dena. Hala ere, hizkuntza bat ikasteko bidea ez da inoiz erraza, ezta ikasle aurreratu hauentzat ere. Horregatik, Euskal Herrira etortzean aurre egin behar izan dizkieten zailtasunei buruz galdetzean, guztiek euskara ikastea zailena izan dela aitortu dute. Kontran, lagunak

egitea eta hemengo bizimoduari ohitzea batere kostatu ez zaiela harro esan dute.

Egun osoan ikastetxean eman ondoren euskara era ludikoan lantzea asko baloratzen dute, eta gurekin egindako saioei buruz gehien gustatzen zaiena galdetzean, jolasen bitartez euskara ikastea erantzun dute. Horrela, jolasteaz gain, hitz berriak ikasten dituztela eta gauzak esateko era egokia ikasten dutela aitortu dute. Klasearen dinamika nahiko sinplea da: egun bakoitzean gai bat euskarritzat hartuta, gai horri loturiko hiztegia eta

egoerak lantzen dira, horretarako jolasak erabiliz.

Gure artean gustura egonagatik, euren herrialdeak ere faltan botatzen dituzte eta herrialdeen arteko alderaketak egitea sahistezina da. Antzekotasunen artean, paisaia eta litxarreriak aipatu dituzte gehienbat. Ezberdintasunen artean, aldiz, eskolak agertu dira lehen postuan. Horietako batzuek ez dute jangela zerbitzurik, eta beste batzuek dendak dituzte eskolan bertan, non litxarrerria eta beste hainbat gauza eros daitezkeen.





Oraingoan Harribide elkarte-ko kide bati egin diogu elkar-  
rizketa, Loliri hain zuzen ere.

### **Zer da harribide?**

Enpresa bat baino funda-  
zio bat da. Orain dela 30  
urte gutxi gorabehera sor-  
tu zen eta San Antonioko  
apaiza izan da sortu zue-  
na, Jose Alberto izenekoa.  
Mugimendu hau hasi zen  
13 urtetik gorako gazteen-  
tzat beharra zegoelako.

### **Gaur egun harribide elkarteak zein ekintza antolatzen ditu?**

Eskolako beharretan  
laguntza ematen diete  
gazteei, ludotekan, mu-  
garrin, udalekuak, tarras-  
ta, proa eta atzeritarrei

ere laguntza.

Txikientzat, 6 ur-  
tetik aurrerakoentzat  
ludoteka dago, 10 urtetik  
14 urte bitartekoentzat  
tarrasta dago eta 14 urte-  
tik gorakoentzat mugarri.  
Atzeritarrei ere laguntza  
ematen diete, horrez gain  
heziketa proiektua eta  
pisu bat hezitzaile batekin  
eta honek beraien bizitzan  
laguntzen die.

### **Zenbat jende daukazue lan egiten harribideren- tzat?**

30 pertsona gutxi gora-  
behera. Normalean 10 la-  
naldi osoarekin urte osoan  
baina kopuru hau aldatzen  
da. Adibidez, udaleku  
garaian pertsona gehiago  
kontratatzeko dira.



### **Zeintzuk dira baldintzak zuekin lan egiteko?**

Proiektuaren arabe-  
ra perfil  
bat eskatzen da edo  
beste bat. Kasu batzuetan  
euskara jakitea eskatzen  
da ludotekan batez ere  
eta kontuan hartzen da  
etxebarritarra izatea.

### **Orain polikiroldegiko taberna hartu duzue, zergatik?**

Lanpostuak sortzeko,  
kudeatzeko, harribideko  
ekintzei buruzko infor-  
mazioa zabaltzeko, baita  
etekinak lortzeko ere.



Etxebarriko euskaltegiko bostgarren urratseko ikasleok gure herriaren historiaren zati txiki bat ezagutzera gonbidatzen zaituztegu.



Hemen, gure herriko eraikin historikoak erakutsiko dizkizuegu. Anima zaitezte etortzera, zuen zain egongo gara!



### ZUBIONDO ERROTA (1745 edo 1746)

Lehenik, irin-errota bat izan zen. XIX. mendean, papera ekoizten zuen lantegi bat izan zen. Uholdeengatik, lantegia desagertzen, maina eraikina mantendu egin zen.



### SANTA ANA ERMITA (1740)

Hasieran, udal-etxe aurrean zegoen. 1963an bota egin zuten, eta 1990ean eraiki zuten berriz, errotaren zubi ondoan. Santa Ana jaia uztailaren 26an ospatzen da.





## AMEZOLA JAUREGIA (1905)

Jauregiak bi eraikin dauzka, biak udaletxe aurrean daude. Manuel Maria Smith arkitektoak eraiki zuen. Orain dela hirurogei urte, bertan txorizo denda bat egon zen.



## LEGIZAMON JAUREGIA

XVIII. mendekoa da. Lezama Legizamon familiarena zen. Barrokkoa da. Bere itxura "T" bat bezalakoa da. Orain jatetxea da.

# BIZKAIERAREN TXOKOA



**ZEBARRI** aldizkariaren ale honetan bizkaieraz kantetan dauen talde bat dakartzuegu: **GATIBU** talde gernikarra. Ziur gagoz inoz Musturre Sartunde (beharbada Alkondarie izenagaz ezagunagoa), Urepel edota Lorak Eskeintzen abestiak entzun eta kantau dozuezala, baina badakizue zelan sortu zan taldea? Lerro honeetan talde honen orain arteko ibilbidea irakur daikezue.

**2**000. urtean Alex Sarduik eta Haimar Arejitak rock talde bat sortutea erabagi eben. Gernikan Alexek eukan lokal batean hasi ziran biak entseguak egiten gitarra akustiko eta irrati-cassette bategaz. Bertan jaio ziran Alexek **GATIBU** deitzea erabagi eban taldearen lehenengo diskoan agertuko ziran abestietako batzuk. Beraien bereizgarri nabarietako bat: bizkaieraz abestea. Hasierako entseguetan Exkixu taldeko Josu Artetxe eta Fito & Fitipaldis taldeko Jose Alberto Batiz taldekide izan baziran be, geroago Gaizka Salazarrek eta Mikel Caballero hartu eben aurreko bien lekua.

Euren lehenengo diskoa, Zoramena, 2002ko gabonilean urten zan kalera. Zoramena benetan, 20.000 kopia saldu eta EITBko Gaztea saria lortu eben eta.

Izan be, 2003. urteko abestirik onena Musturrek Sartunde izan zan. Arrakas-ta izugarria, beraz, bizkaieraz abestea erabagi eban talde batentzat.

2005eko urtarrilean barriro sartu ziran estudioan bigarren diskoa grabetako, eta martian «Disco Infernu» izenagaz argitaratu zan disko barria. Euskal Herria osotik ia ehun kontzertu emon ostean, EITBk 2006ko Gaztea sarietan «Disco Infernu Tour» birari zuzeneko onenaren kategorian izendapen bat emon eutson. Urte berean, Getxoko Bertsolari Alkarteak be talde gernikarra saritu eban, musika esparruan bizkaieraren erabileraren alde lan egiteagaitik.

2008ko zemendiaren 20an «Laino Guztien Gainetik, Sasi Guztien Azpitik» diskoa argitaratu zan. Hurrengo urtean



EITBk Gaztea sarietako edizino barri batean «Laino Guztien Gaietetik, Sasi Guztien Azpitik» albuma eta “Bang-Bang Txik-Txiki Bang-Bang” kanta urte bereko disko eta abestirik onena sar-  
iakaz saritu ebazan hurrenez hurren.

2010ean «Zuzenean Bizitzeko Gogoa» zuzeneko disko bikotxa argitaratu eben, «Laino Guztien Gaietetik, Sasi Guztien Azpitik» diskoaren aurkezpen biran, Bilbo, Donostia, Durango eta Gernikan eskainitako kontzertuez osatua. Kriti-  
kariak eta entzuleak goraipamenetan bat etorri ziran taldearen lana balore-  
tako orduan.

Ibilbide bikaina, zalantza barik, GATIBU talde bizkaitarrarentzat.

Ale honen BIZKAIERAREN TXOKOARI amaiera ezin hobea emoteko, hona he-  
men GATIBU taldearen hiru abesti, ba-  
kotxa bere berbakaz. Gozau eizuez!

## ► Loturak



### MUSTURREK SARTUNDE

<http://www.youtube.com/watch?v=o8mzaqaDNeM>

### UREPEL

<http://www.youtube.com/watch?v=DLGE6pdDEJ0>

### LORAK ESKAINTZEN

[http://www.youtube.com/watch?v=Ihm-A\\_O7NGlg](http://www.youtube.com/watch?v=Ihm-A_O7NGlg)

Infomazino-iturria: **www.gatibu.net** (moldatua/egokitua)

Irudiak: **www.gatibu.net / google**



# Asteburuko Planak



Asteburuak gauza berriak ezagutzeko erabili nahi dituzuela? Abenturazaleak zaretela? ba... hauek dira Euskaltegiko ikasleon proposamen batzuk.

## SENDAVIVA

[www.sendaviva.com](http://www.sendaviva.com)



**Kokapena:** Argedasen dago, Nafarroan. Etxebarritik bi ordu eta erdira.

**Zer da:** naturaren parkea da.

**Zer dago:** 3 zona daude:

- **Animalien zonaldea:** abereak, animalia tropikalak eta exotikoak ikusteko aukera dago.
- **Jolas parkea:** 30 jolas baino gehiago gozatu ahalko dituzu, adin guztietako jendeari zuzenduak. Honakoak nabarmentzen dira: erortze askea, ur- labirintoa eta Europako tirolinarik luzeena.
- **Ikuskizun zonaldea:** hainbat ikuskizun eskeintzen ditu: hegazti harrapariak, zirkua eta alfonbra magikoak.

**Ordutegia:** neguan itxita egoten da. 11etatik 20etara.

**Prezioa:** 0- 4: dohainik  
5- 11: 18 euro  
12- 64: 25 euro  
65etik gorakoentzat: 18 euro



## CABUERNIGAVENTURA

[www.parquemultiaventura.com](http://www.parquemultiaventura.com)

**Kokapena:** Lamiña- Ruente, Cantabria.

**Zer da:** multiabentura parkea

**Zer dago:** 5 gunek daude:

- Bide hezkuntza zirkuitua.
- Arku jaurtiketa
- Ibilalditxoak pottokan
- Golfak eta minigolfak
- Tirolinak



**Ordutegia:** urte osoan irekita. 11etatik 21etara.

**Prezioa:** 0-3: dohain

4-6: 10 euro

7-12: 15 euro


12-64: 18 euro

65etik gorakoentzat: 9 euro



# KARPINABENTURA

www.karpinabentura.com



**Kokapena:** Karrantzan dago. Etxebarritik ordubetera.

**Zer da:** Animalia babestuak dauden parkea da.

**Zer dago:** Parke 4 zonaldetan banatuta dago:

- **Animalia Parkea:** Egoera berezietan hartutako 55 espezie ikusteko aukera dugu.
- **Terrasauro:** Bidaia zoragarria Jurasikora. Bisitariok dinosauroen bizimodua ezagutuko dugu, adibidez, T- Rex-ena.
- **Gastor Nis Land:** Basapiztien lurraldea. Bertan panterak, krokodiloak, eta hartzak bezalako animalia ikusgarriak daude.
- **Dinotxiki:** Haurrentzako jolasak eta dibertsioa. Atrakzio zoragarriak daude, hala nola, txirristak.

**Ordutegia:** Urte osoan irekita. 11etatik 19etara.  
(neguan 17etara).

**Prezioa:** Oti 3 urtera: dohainik

4tik 16ra: 5 euro

helduak: 8 euro

erretiratuak: 5 euro

**Gomendioa:** 800 metrora Pozalaguako kobak daude.



# SOPUERTA ABENTURA

www.sopuerta-abentura.com

**Kokapena:** Enkarterrietan dago, Sopuertan.  
Etxebarritik 30 minutura.

**Zer da:** Abentura parkea zuhaitzetan.

**Zer dago:** 4 gunetan banatzen da:

- **Zuhaitzen parkea:** 5 zirkuitu daude, bakoitzak zailtasun ezberdina duena.
- **Tirolina zirkuitua:** 5 tirolina eta 2 igotzeko eskailera dauzka.
- **Arku jaurtiketa:** Lagunartean ondo pasatzeko aukera paregabea.
- **Jumping:** Adrenalina askatzeko jarduera 6 metroko altueratik salto eginez.

**Ordutegia:** Urte osoan 11etatik 18:30era.

**Prezioa:** Zuhaitzen zirkuitua: Helduentzat 16 euro  
eta umeentzat 12 euro.

**Jumping:** Apiriletik irailera zabalik.  
6 minutu 3 euro.

**Arku jaurtiketa:** 10 uretik gorako umeentzat  
bakarrik. Ordu erdi 10 euro.





Inauteri  
eguna



Torrada irabazlea  
ezin dizugu eman  
dastatzeko, mozorrorik  
onena, ordea, bai

euskaltegia pasarela bihurtuta



Torrada lehiaketan  
denetarik izan genuen,  
torrada gozoak,  
torrada gaziak....

Euskaltegiaren  
jaia



pintxolaritzan



gazte-gazte diraute irakasleek





puntu zenbaketa



itxura ederra



5 sardexkako jatetxea



solariumean bazkaltzen



tortilari buelta emanda



Euskaltegiaren  
jaia



baaaa....8. urratseko ikasleek



zeinek irabaziko zuen.....?



# salba nazazu

(Aldizkari honek ez ditu bere egiten bere tertuliakideen iritziak)

*Egunero klasera joaten gara. Ikasle saiatuak, langileak eta zintzoak bagara. Nabarmentzekoa da dungun puntualitatea, baita asistetzia ere. Halabaina, ilargibetea dagoen bakoitzean, Espainiako famatu frikien espirtuak gure gorputzak hartzen ditu; izan ere, gure klasea “Salba Nazazu” plato bihurtzen da. Zurrumurrurik gezurrezkoenak aipatu eta txokorik ilunetara eramanez. Hona hemen gure fitxajeen kurrikulumak*

## Luzia Patiñu

| kasketak bukatu bezain pronto “Anbizionex”ko aditu bihurtu zen. Platoz plato joatean da famatuen bizitzez hitz egiten, baina... zergatik ez du kontatu bere afera toreatzaile famatu batekin? Kontuz bere zainarekin, edozein momentutan lehertu ahal du-eta.

## Sandra Loxano

P latoko dotoreena eta metxak onenen daramatzana da. Berak baino hobeto txuminero dantza egiten duenik ez dago. Ilenia kasuagatik mundu osoan ospe handia izan zuen eta harrezkero, egunero platoan “kaña” ematen diote eta negarrez bukatzen ditu saio gehienak. Izan ere, askoetan plotik joaten da begiak berriro margoztera eta ilea apaintzera.

## Iñaki Mauruhiltzailea

J ator-jatorra da. Oso heziketa onekoa eta errespetuz tratatzen ditu tertuliakideak beti. Tira, beti ez. Gehienetan. Mauruhiltzailea du abizena baina ez du maururik hiltzeko asmorik. Nola ba? Mauruekin lan egiten dihardu astero. Mauru maitagarri horiek...

## Kointxita Martxante

S upervivientes telesaioan parte hartu ondoren, koko famatu horrekin juntatu eta elkarrekin bizi dira Madrilgo etxe txiki batean. Hondartzarik, kokotero eta ur gardenik ez duen etxea da, baina gustora bizi dira maitasun handia dutelako elkarrengan.

## Goñi Xabier Baskez

T xuekako bere pisua utzi eta Bilboko Alde Zaharreko pisu batera joan zen bizitzera. Handik aurera euskara klaseak eta platoak uztartzen ditu. “Askoz errazagoa Salba Nazazu platoa bideratzea, Etxebarriko euskaltegiko nire ikasleak baino”.



# AZKEN ORDUKO EKSKLUSIBA!!!

Legebiltzarreko ustezko iturrien arabera, Patxi Lopez Lehendakariaren eta Antonio Basagoiti EAEko Alderdi Popularraren presidentearen arteko ezkontza apurtu omen da, nahiz eta iturri ofizialek baieztatu ez.

Azken bolada honetan nabarmenak izan dira gure bi protagonisten arteko istiluak. Izan ere, hasieran bi amoranteren arteko errietak bazirudien ere, azkenean gatazka handia geratu eta gero, konfirmatzen da bikotekidea apurtu egin dela. Alde horretatik, berria jakinarazi digunak ziurtatzen du Lakuako komunitan Patxi Lopezi entzuten zitziola negar latz batean: "Está con otro, está con otro..." esaten zuen bitartean. [Erderaz esana, oraindik HABE1 ere ez baitu].

Izan ere, horixe bera izan omen daiteke banatzearen arrazoietakoa bat: Basagoiti etsituta eman omen ditu hilabeteak laztana orde, "Cari" deitzen ziolako belarrian goxo-goxo... eta antza, Basagoitik ezin zuen horrekin. Hori dela-eta, beste beso euskaldun batzuen bila abiatu da Antontxu. Zeuen buruei galdetu ote diezue honakoak, ezta?

Nork beteko du Basagoitiren bihotzaren egoitza? Norengan aurkituko ote du kontsolamendua Patxiren kontsolamenduak?

Hona hemen gure kolaboratzaileen iritziak:

**-Luzia Patiñu:** Nire iturri batek komentatu dit Basagoiti ikusi duela Otegirekin "Vis a Vis" batean; oso hurbil eta euskaraz barra-barra aritzen zirela.

**- Iñaki Mauruhiltzailea:** Zuk esaten duzuna, Patiñu, lelokeria galanta da, Basagoiti ez dagoelako Otegiren euskara ulertzeko.

**- Sandra Lozano:** Ea ba...Itxoin-itxoin... Eskuko telefonoa joka daukat. [Sandra Lozano telefonoz ari da eta eskua goitik behera astintzen du, harrituta entzuten ari deanagatik] "...bai...bale...ados...eskerrik asko, agur." Ez dakit egia izango den ala ez, baina kontatu didatenagatik atzo arratsaldean Basagoiti eta Rosa Diez Kafe Antzokian egon ziren Pirritx eta Porrotxen kontzertuan. Antza denez, Rosa primeran moldatzen da Basagoitiren alabaxoarekin, hots, Esperantza Agirrerekin



**- Kontxita Martxante:** Ez pentsa Patxi Lopezek ere negar batean ematen dituenik egunak. Bada-kizue ni "orgullo" aren eguneko amabitxia izan nintzela eta han oso gustora ikusi nuen Basagoiti Urkullurekin karroza baten gainean, folklorikaz jantzita biok.

**- Goñi Xabier Baskez:** GELDITU MAKINAK!!! Pinganilloan esaten didate Aintzane Ezenarro Salba Nazazu Deluxera etorriko dela eskusiba ikaragarria ematera. Izango al da Ezenarro Aralarkide ohia Patxiloren hurrengo bikotekidea. Notizia gehiago hurrengo Zebbari Deluxe-n.



# Horoskopoa



## **KAPRIKORNIO (Abenduaren 21etik Urtarrilaren 20ra)**

*Amodioa:* norbait ezagutuko duzu

*Dirua:* aurreztu!

*Osasuna:* kontuz ibili esertzeko moduarekin

*Asteko eguna:* igandea

*Ondo:* Piscisekin

*Txarto:* Geminisekin



## **AKUARIO (Urtarrilaren 21etik Otsailaren 20ra)**

*Amodioa:* zure bikoteak arazoren bat dauka.

*Dirua:* lankide bat postua kentzen saiatuko da

*Osasuna:* ajeak ez dira makalak izango

*Asteko eguna:* astelehena

*Ondo:* Librarekin

*Txarto:* Taurorekin



## **PISZIS (Otsailaren 21etik Martxoaren 20ra)**

*Amodioa:* jende berria ezagutuko duzu

*Dirua:* ez erosi buruan duzuna, garestiegia da

*Osasuna:* erretzeari utzi behar diozu

*Asteko eguna:* ostirala

*Ondo:* Taurorekin

*Txarto:* Librarekin



## **ARIES (Martxoaren 21etik Apirilaren 20ra)**

*Amodioa:* bihotza apurtuko dizute

*Dirua:* ez jokatu loterian

*Osasuna:* kontuz hotzarekin

*Asteko eguna:* larunbata

*Ondo:* Geminisekin

*Txarto:* Taurorekin



## **TAURO (Apirilaren 21etik Maiatzaren 20ra)**

*Amodioa:* bidaia erromantikoa

*Dirua:* garai txarrak datoz

*Osasuna:* zaintzen hasi beharko duzu

*Asteko eguna:* igandea

*Ondo:* Virgorekin

*Txarto:* Ariesekin



## **GEMINIS (Maiatzaren 21etik Ekainaren 20ra)**

*Amodioa:* ez zaitez lotsatia izan eta aurreratu zaitez!

*Dirua:* lankideek salduko zaituzte eta arazo larriak edukiko dituzu

*Osasuna:* aprobe txatu zure osasun ona

*Asteko eguna:* ostirala

*Ondo:* Ariesekin

*Txarto:* Escorpiusekin

# Horoskopoa



## **KANTZER (Ekainaren 21etik Uztailaren 20ra)**

*Amodioa:* zure bikotearekin eztabaidatuko duzu

*Dirua:* ate asko irekiko dizkizun bidaia bat egingo duzu

*Osasuna:* egin ezazu kirol asko

*Asteko eguna:* astelehena

*Ondo:* Librarekin

*Txarto:* Taurorekin



## **LEO (Uztailaren 21etik Abuztuaren 20ra)**

*Amodioa:* beste sexuko pertsona horrekin lasaiago joan beharko duzu

*Dirua:* kontuz hipotekarekin

*Osasuna:* arazo sexualak izango dituzu

*Asteko eguna:* asteazkena

*Ondo:* Geminisekin

*Txarto:* Librarekin



## **VIRGO (Abuztuaren 21etik Irailaren 20ra)**

*Amodioa:* aspaldiko maitale hori agertuko da

*Dirua:* hilabete honetan lasai ibiliko zara

*Osasuna:* igeri egitea komenigarria da bizkarreko mina kentzeko

*Asteko eguna:* osteguna

*Ondo:* Librarekin

*Txarto:* Acuariusekin



## **LIBRA (Irailaren 21etik Urriaren 20ra)**

*Amodioa:* zure bikoteak utziko zaitu

*Dirua:* lanean oso ondo ibiliko zara.

*Osasuna:* zaindu bizkarra eta lepoa

*Asteko eguna:* osteguna

*Ondo:* Aquariusekin

*Txarto:* Piscisekin



## **ESKORPIO (Urriaren 21etik Azaroaren 20ra)**

*Amodioa:* norbait berria sartuko da zure bizitzan

*Dirua:* krisia dela eta pertsona batzuk soberan daude zure lanean.kontuz!

*Osasuna:* tenperatura aldaketa hauek ez dira batere onak izango zuretzat

*Asteko eguna:* astelehena

*Ondo:* Ariesekin

*Txarto:* Taurorekin



## **SAGITARIO (Azaroaren 21etik Abenduaren 20ra)**

*Amodioa:* nahi duzunarekin nahi duzuna egin ahal izango duzu

*Dirua:* bila ezazu beste lan bat

*Osasuna:* sorbaldako mina edukiko duzu

*Asteko eguna:* asteartea

*Ondo:* Leorekin

*Txarto:* Capriconiusekin



## HASIERAKOAK

### Piper, urdaiazpiko eta ahuntza gazta pintxotxoak

|                                          |
|------------------------------------------|
| Moldeko ogia: 4 ale                      |
| Pikilloko piperrak: 1 eta erdi ale       |
| Pikilloko piper berdeak.: 1 eta erdi ale |
| Baratzuriak:: 1 eta erdi ale             |
| Urdaiazpikoa: 50 g                       |
| Uhaza: ale erdi                          |
| Ahuntzaren gazta: 50 g                   |
| Esne-gaina: 0,05 l                       |
| Txanpiñoiak: 0,05 kg                     |
| Ketchup: 0,05 g                          |



Moztu moldeko ogia, z igurtzi eta labean sartu. Melatu pikilloko piperrak eta nahastu olibekin eta baratxuriekin. Gorritu txanpiñoiak eta baratxuriak. Moztu uhaza eta urdaiazpikoa. Egin saltsa bat ahuntzaren gaztarekin eta esne-gain gaztarekin eta berotu. Osatu ogitxoak: Lehenengo uhaza, txanpiñoiak, urdaiazpikoa, eta bukatzeko piperrak. Labean sartu pitin bat. Atera, e eta gazta-saltsa gainetik bota, apaindu perrexilarekin.

### Izokin ketua oliotan

|                         |
|-------------------------|
| Ogi txikitxoak          |
| Poltsa bat izokin ketua |
| Gurin gatzatua          |

Igurtzi ogi txikitxoak gurinarekin , eta gainean jarri izokin xerrak gurutze bat eginez.



### Gazpatxo kopatxoak

|                         |
|-------------------------|
| Baratzuriak.: ale bat   |
| Piper berdeak.: 0.03 kg |
| Ozpina                  |
| Ura: 200 ml             |
| Gatza                   |
| Tomatea 0.25kg          |
| Olio: 0.10 l            |



Egin gazpatxoa eta utzi hozten. Bota edalontzian gazpatxoa, eta apaindu tomat-earekin eta menda orri batekin.



## LEHENENGO PLATERA

### Otarrainxka-koktela

|                                   |
|-----------------------------------|
| 20-24 otarrainxka edo ganba handi |
| Uhaza bat                         |
| 12 Cherri tomate                  |
| Tipula bat                        |
| 2 arrautza egosita                |
| 8 ale txaka                       |
| 4 laranja xerra                   |
|                                   |
| Saltsa –arrosa.                   |
| Tabaskoa                          |
| 2 koilarakada Ketchup             |
| 2 koilarakada koñak               |



Garbitu uhaza eta zatitu. Txikitu tipula, txaka eta arrautzak. Zuritu otarrainxkak. Lehenengo, ipini uhaza eta tipula koktail kopetan. Gero otarrainxkak, arrautzak, txaka eta tomateak gehitu.

Bitartean, saltsa arrosa prestatu: maionesa, tabaskoa eta koñaka nahastu ontzi batean. Nahasketa hau kopen barruan jarri. Laranjaekin apaindu eta orain... Jatera!

## BIGARREN PLATERA

### Aspizuna Idiazabal erara

|                              |
|------------------------------|
| Kilo bat aspizun (txahalkia) |
| Tipula bat                   |
| 100 g Idiazabal gazta        |
| Koilarakada bat konac        |
| Koilarakada bat mostaza      |
| Pixka bat oregano            |
| Bi koilarakada esne-gain     |
| Sorta bat perrexil           |
| Gatza                        |
| Piper beltza                 |



Garbitu aspizuna uretan, gatza eta piperra bota. Txikitu tipula eta perrexila. Ontzi batean nahastu Idiazabal gazta, konac-a, mostaza eta esne-gaina. Gero, nahaste horrekin bete aspizuna. Labean sartu 180 gradutara, 30 minutuz. Bero zerbitzatu!

# UDAKO MENUA

## POSTREA

### Intxaursaltsa

Koilarakada bat kanela hauts

250 g intxaur

Bi katilukada esne

Bote bat esne kondentsatu

150 g azukre



Zati itzazu intxaurrek pasta mehea egiteko. Ontzi batean, bota esnea intxaurrekin eta kanelarekin, eta jarri su txikian hogeita hamar minutuz. Noizean behin eragin...

Loditzen hasten denean, gehitu azukrea eta utzi sutan 5 minutu gehiago.

Gero, ipini nahasketa plater txikitetan eta jateko momentuan bota kanela gainetik.

intxaursaltsa hots edo epel jaten den postrea da.

..ETA BUKATZEKO..!

### Jo ta fuego hondartzan

"Sex on the beach" jatorrizko bertsioan

OSAGAIK:

Vodka: 50 ml

Melokotoizko likorea: 30 ml

Laranja-zukua: edalontzi 1/2

Granadina: 10 ml



PRESTAKUNTZA:

Koktelera hartu eta bota 50ml vodka-Melokotoizko eta laranja-zukua erantsi. Bukatzeko granadina erantsi. Estali koktelera eta gogor eragin dena nahastu arte.

Edalontzi zabal bat aukeratu, zerbitzatu eta eskaini hotz dagoenean.

Orain bikotekidea baino ez duzu aurkitu behar plazerari behar bezala eusteko!

Edan eta gozatu!



# Zenbateraino ezagutzen duzu Etxebarri?

1. Zenbateko azalera dauka Etxebarrik?
  - a) 2,26 km
  - b) 3,26 km
  - c) 5,26 km

---
2. Zenbat biztanle dauzka Etxebarrik?
  - a) 10.000tik gora
  - b) 10.000tik behera
  - c) 10.000

---
3. Zenbat kilometro dago Etxebarritik Bilbora?
  - a) 2,5
  - b) 1,80
  - c) 1,50

---
4. Zein herri dauka Etxebarrik ekialdean eta mendebaldean?
  - a) Galdakoa- Bilbo
  - b) Bilbo-Galdakao
  - c) Basauri-Galdakao

---
5. Zein izen zeukan Etxebarrira etorri zen lehendabiziko etorkinak?
  - a) Jose el panadero( okina)
  - b) Paco el barbero (bizargina)
  - c) Pepe el cartero( postaria)

---
6. Zein urtetan aldatu zuen izena Etxebarrik?
  - a) 2000an
  - b) 2004an
  - c) 2005ean

---
7. Zein adinetako jendea dago gehien Etxebarrin?
  - a) 0-4
  - b) 30-34
  - c) 35-39

---
8. Zein urtetan jarri zuten Metacal lantegia Etxebarrin?
  - a) 1951ean
  - b) 1956an
  - c) 1940an

---
9. Zer du Etxebarriko armariak zuhaitz baten gainean?
  - a) gurutze bat
  - b) gezi bat
  - c) otso bat

---
10. Zenbat jesarleku zeukan Etxebarrik Gernikako Batzar Nagusietan?
  - a) 37
  - b) 10
  - c) 40

---



11. Zein urtetan jarri zen abian Metroa?  
a) 2003an  
b) 2004an  
c) 2005ean
- 
12. Zer esan nahi du Zebarri hitzak?  
a) Udallerriak XV. mendean zeukan izena da  
b) Bertako baserri zahar baten izena zen  
c) Euskaltegiak ikasleek argitaratzen duten aldizkaria
- 
13. Zein izen zeukan hasiera batean Acelor-Mital lantegiak?  
a) Acelor  
b) Altos Hornos de Bizkaia  
c) Lezama-Legizamon
- 
14. Zein arrazoirengatik kendu zuten Basaurirako bide-zidorra?  
a) Metroagatik  
b) Euskotreneko trenbideagatik  
c) Biengatik
- 
15. Zein egunetan ospatzen dugu Etxebarriko zaindariaren eguna?  
a) Uztailaren 22an  
b) Abenduaren 26an  
c) Ekainaren 13an
- 
16. Zeinenak ziren Bekosoloko txaletak?  
a) Udalarenak  
b) Familia bakar batenak  
c) Lantegi batenak
- 
17. “Zoriontsua naiz ezer ez dudalako; dagoeneko, den dena eman dudalako” Zein pertsonak esan zuen?  
a) Etxebarriko parroko ohi batek, Jesus Maria Llano Urkijok  
b) Etxebarriko alkateak, Loren Olivak  
c) Etxebarrin jaio eta hil zen misiolari batek, Eusebio Urzelaik
- 
18. Etxebarriko zein txokotan dago goiko esaldia idatzita?  
a) Elizan  
b) Iturri batean  
c) Bekosolo parkean
- 
19. Zein lanbide zeukan alkate ohiak?  
a) Irakaslea  
b) Abokatua  
c) Ekonomialaria
- 
20. Zein da KUKULLAGA eskubaloi taldearen maskota?  
a) Asterix  
b) Obelix  
c) Panoramix
- 
21. Zein sari eman zioten 2008an?  
a) Zientzia eta berrikuntzaren saria  
b) Zilarrezko erratza saria  
c) Hiririk garbienari saria

## LOGIKA JOKOA



- 1- Saskibaloia gustatzen zaiona bilbotarra da.
- 2- 33 urte dauzkanak Alaine du izena eta golfa du gogoko.
- 3- Gasteiztarra pilotazalea da, eta golzaleak baino urtebete gehiago dauka.
- 4- Futbola gustatzen zaiona Karlos da eta 41 urte dauzka.
- 5- Alainez eta Josuk supermerkatu berean egiten dute lan: lehena harakina da, eta bigarrena okina.
- 6- Josuk nahaigo du eskiatu.
- 7- Bilbotarrak bi dira: Josu eta Jone.
- 8- 41 urte dauzkanak ikastolan egiten du lan irakaslea da.
- 9- Pilota gustoko duen persona medikua da, Peio.
- 10- Saskibaloi talede batean jokatzen duenak, erizainak, 35 urte dauzka, eta bere herrikideak 31.
- 11- Ikastolan lan egiten duena Etxebarrikoa da.
- 12- Zaharrenak donostiarrak baino 8 urte gehiago dauzka.

| IZENA       |  |  |  |  |  |
|-------------|--|--|--|--|--|
| ADINA       |  |  |  |  |  |
| HERRIA      |  |  |  |  |  |
| LANBIDEA    |  |  |  |  |  |
| ZALETASUNAK |  |  |  |  |  |



# Denborapasak

## LETRA ZOPA

- 1- Odolak duen kolorea.
- 2- Umeak zaintzen dituen persona.
- 3- Sagardoa egiteko erabiltzen den fruta.
- 4- Idazteko balio duen tresna.
- 5- Neguan lepoa estaltzen duen jantzia.
- 6- Futbolean jokatzeko erabiltzen den objektu borobila.
- 7- Musika jotzen duena.
- 8- Kirola egiten den lekua.
- 9- Ordua ematen duen tresna.
- 10- Igeri egiteko janzten duguna.


|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B | A | I | N | U | J | A | N | T | Z | I | A |
| M | J | S | X | J | K | O | U | T | Z | B | D |
| F | A | O | M | U | S | I | K | A | R | I | K |
| A | N | S | A | I | R | R | O | G | I | I | A |
| S | I | P | A | L | G | D | G | T | R | R | X |
| W | A | M | N | S | A | U | J | O | L | R | E |
| T | Z | G | P | J | Z | A | L | T | R | X | A |
| J | E | Z | A | B | X | D | I | H | L | R | K |
| I | M | S | F | R | E | O | P | O | K | A | B |
| D | U | R | O | G | R | A | H | B | L | F | G |
| T | B | Z | I | S | K | A | T | I | E | A | H |
| O | N | A | R | K | A | T | Z | A | I | O | B |




# Denborapasak

## HIEROGLIFIKOAK


Nondik hartu duzu?



Bilboko autobusa



## ATSOTITZA OSATU



# UDAN ERE EUSKARA GOGOZ IKASI

ESTUDIA EUSKERA TAMBIEN EN VERANO DE UNA FORMA AGRADABLE

## TRINKOAK

### ETXEBARRIN edo BILBON

- Maila guztiak
- 5 orduko ikastaroak

### UZTAILEAN-ABUZTUAN-IRAILEAN

(uztailean eta irailean arratsaldez ere)

**Precio: 103 €**

### ETXEBARRI o BILBAO

- Todos los niveles
- Cursos de 5 horas

### JULIO – AGOSTO - SETIEMBRE

(julio y setiembre tambien por la tarde)

**Precio: 103 €**

## BARNETEGIAK

### Eguneko barnetegia

### BILBON

#### Mailak:

- 2. maila/Hobekuntza eta
- 3. maila/EGA

**Iraupena:** Bi aste

#### Ordu kopurua:

8 ordu egunean-80 orduko ikastaroak

#### Ordutegia:

08:30 – 14:00 eta 16:00 – 19:00  
Bazkaria barne / Comida incluida

**219,40 €**

### Gau eta eguneko barnetegia

### ARANTZAZUN

#### Mailak:

- 2. maila/Hobekuntza eta
- 3. maila/EGA

**Iraupena:** Bi aste

#### Ordu kopurua:

8 ordu egunean-100 orduko ikastaroak

#### Ordutegia:

8:30 – 14:00 eta 16:00 – 19:00

**433 €**

Tutoretzak eta talde-saioak astero (uztailean eta irailean).

*Tutorías y clases grupales semanales. Julio y setiembre.*

**Abuztuan on-line 201 €**

**On-line bakarrik. 3 hilabete 92,25 €**



**Agosto on-line 201 €**

**On-line. Sólo 3 meses 92,25 €**



Bekosolo parkea z/g  
Etxe horia / Casa Amarilla  
Tel/Fax 94 426 28 02  
[etxebarri@euskalnet.net](mailto:etxebarri@euskalnet.net)



**YLIBARRI**  
EUSKALTEGIA

Tel. 94 416 24 72

Prezioak Etxebarrin erroldatuta dauden pertsonentzat.  
Todos los precios son para los/as habitantes de Etxebarri.